

Laudio, 2021eko maiatzaren 18a

EAJ-PNVren kudeaketa onak Laudion 2021erako Inbertsio Plana aho batez onartzea ahalbidetzen du

- Udaleko alderdi politiko guztiek onartu dute alderdi jeltzaleak aurkeztutako dokumentua, eta, horri esker, proiektu garrantzitsuak gauzatu ahal izango dira, hala nola Etxebarri baserria sendotzea, basoberritzeak, pumptrack eta skate parke bat, asfaltatu berriak eta haur parke baten estalkia, baita Lamuza kiroldegiko kantxa eraberritzea ere, uda honetan jorratuko dena*

Maiatza albiste onez beteta dator audioarrentzat, alderdi politiko guztiek ezohiko osoko bilkuran onartu dutelako 2021erako Inbertsio Plana, Gobernu Taldeak proposatuta, **Ander Añibarro** jeltzalearen alkatetzapean. Mugarri horrek udalerriarentzat funtsezkoak diren eta herritarren ongizatea hobetuko duten proiektuei argi berdea ematea dakar.

Horrela, urrats handi horri esker, **Etxebarri baserria** sendotu ahal izango da, 190.000 euroko inbertsioarekin. Asmoa da lehen fase bat egitea hura segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzetan mantentzeko, eta etorkizunean erabakiko da zertarako erabiliko den eta, horren arabera, zer esku-hartze egingo diren etorkizunean.

Era berean, planak beste inbertsio batzuk ere jasotzen ditu, hala nola 110.000 euro **baso-berritzeak** egiteko eta 150.000 euro **asfaltatuentzat**, EAJ-PNVk herritarrekin duen konpromiso gisa. Horiek aurreko ekitaldi bakoitzean, legegintzaldiaren lehen bi urteetan, bideratu diren 300.000 euroei gehitzen zaizkie, udalerrri osoan banatutako dozena bat kale baino gehiago eguneratu eta hobetu ahal izateko.

Dokumentu honetan diruzaintzako gerakinaren kargura jasotzen den beste inbertsio bat udalerriko haur-parke batean estalki berri bat jartzea da, Areta eta Ugarte parkeekin egin zen bezala. EAJ-PNVk audioarrekin hartutako beste konpromiso bat da, beren eskaerei erantzuteko. Esku-hartze horretarako 130.000 euro gorde dira guztira.

Halaber, beste 130.000 euro bideratuko dituzte '**pumptrack**' eta '**skate**' pista bat sortzeko. Aurreko aurrekontu parte-hartzaileetan eskatutako bi proiektu horiek nabarmen hobetuko dute Lamuzako gunearen egungo aisialdi-eskaintza. Bestalde, Lamuza-Granja kiroldegiko **kantxa eraberritzeak** 60.000 euroko aurrekontua izango du eta datozen hilabeteetan gauzatuko da. Gainera, kantxa berria balioaniztuna izango da, eta hainbat kirol egiteko aukera emango du.

Proiektu horiek guztiak legegintzaldiko lehen bi urteetan Laudioko Udalean egindako kudeaketa eraginkorraren emaitza dira. Garrantzitsua da kontuan hartzea, azken urte honetan, COVID-19ren osasun-krisiaren ondorioz, nabarmen murriztu direla Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsetik (FOFEL) datozen diru-sarrerak; beraz, garrantzitsua da udalerriko proiektu horien guztien aurrerapena baloratzea, egungo inguruabarrak kontuan hartuta.

Laudio esnatuta dagoen herria da orain, pandemiaren ondorioz hilabete oso zailak igaro ondoren, argia baikortasunez eta itxaropenez ikusten hasi da, eta hori datozen hilabeteetan eta, jakina, urteetan EAJ-PNVren alkatetzapean argitaratuko diren proiektuen adibide bat besterik ez da.